



## **EEP-REN CORPUS LINGUISTIKOA ESKURATZEKO HITZARMENAREN GAINEKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA**

---

### **95/2021 LT - LGAKZ**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak legezkotasun-txostena eskatu du goiburuan aipatutako hitzarmenaren behin-behineko testuari dagokionez.

Txosten-eskaerarekin batera, honako agiri hauek helarazi dira:

- Hitzarmenaren hasierako behin-behineko testua.
- Memoria teknikoa, Euskara Sustatzeko zuzendariak sinatua.
- Sailaren txosten juridikoa, Zerbitzu Zuzendaritzaren lege-aholkularitzak sinatua
- Memoria tekniko osagarria, Euskara Sustatzeko zuzendariak sinatua.
- Hitzarmenaren bukaerako behin-behineko testua.
- Gobernu kontseiluari igorriko zaion akordio proposamena

Txosten hau ondoko arau hauek ezarritakoagatik idazten eta ematen da: Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua; Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15. Artikulua.

## **LEGEZKOTASUN TXOSTENA**

### **I.- AURREKARIAK ETA XEDEA.**

Euskara Sustatzeko zuzendaritzaren memoria teknikoak adierazten du, hizkuntza-teknologiak agertu zirenetik, Eusko Jaurlaritzaren ardura eta helburua izan dela, beti, euskara Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan eta, oro har, Ingurune digitalean integratzea. Itzulpen automatikoari dagokionez, 2007an hasi zen Eusko Jaurlaritza lanean itzultzaile automatiko gramatikala garatzeko lehenengo urratsak ematen.

Itzulpen automatikoaren alorrean, sekulako jauzia gertatu da azken urteotan, gaur egun, itzulpen automatikoak erabiltzen duen teknologia adimen artifizialean oinarritzen baita, hain zuzen 'sare neuronaletan'.

Eusko Jaurlaritzak euskara sare neuronalen teknologian integratzeko ahalegina egin du eta, 2019ko irailaz geroztik, itzultzaile automatiko neuronalak herritar guztion eskura dago sei itzulpen norabidetan: euskara ↔ gaztelania, euskara ↔ frantsesa eta euskara ↔ ingelesa ([www.euskadi.eus/itzuli](http://www.euskadi.eus/itzuli)).

Itzultzaile automatiko neuronalak entrenamendua behar du ikasteko eta hobetzeko. Eta horretarako, corpus elebidun handiak behar dira, hau da itzulpen-unitateak, kalitatekoak.

Bestalde, 2017an, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen Euskararen Erakunde Publikoa (aurrerantzean EPP) izeneko Iparraldeko elkartearekin 2017-2022 eperako. Hitzarmen horrek finkatzen du bi erakundeek euskararen aldeko hizkuntza politikaren eremuan garatu nahi duten lankidetzaren esparrua.

Lankidetzaren horren harira, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak EEPri proposamena egin dio, adimen artifizialean garatutako itzulpen automatiko neuronalean (NMT, Neural Machine Translation) oinarritutako – frantsesa ↔ euskara, hizkuntza-pareak hobetze eta trebatze aldera.

Euskararen Erakunde Publikoak corpus elebidun handi bat (euskara ↔ frantsesa) osatu du eta nahi du erabiltzea itzultzaile neuronalak hobetzeko eta trebatzeko.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmena sinatuko dute EEPk corpus hori Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskura jartzeko, hark ITZULI itzultzaile neuronalak hobetzeko eta trebatzeko (euskara ↔ frantsesa) erabili dezan.

## II - ESKUMEN-GAIKUNTZA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.17 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena duela kultura arloan, betiere Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikuluan jasotakoari kalterik egin gabe.

Bestalde, Euskarari gagozkiola bereziki, Euskal Autonomia Estatutuaren 6.5 artikulua beren-beregi ahalbidetzen du Euskal Autonomia Erkidegoak hitzarmenak sinatu ditzakela estatu kanpoko lurralde eta erakundeekin, euskara zaindu eta bultzatzeko, euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea den neurrian; bai eta Espainiako Gobernuari zein

Gorte Jeneralei lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak egin ditzala eskatzeko ere bai.

Hitzarmen horiek hartu dezaketen formari gagozkiola, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, 40/2015 Legea) 48.1 artikulua hau xedatzen du: "Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin izango du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea".

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak zuzenbide publiko eta pribatuko subjektuekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko ahalmena du.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eremu funtzionalari dagokionez, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 14.1 artikulua arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, besteak beste, hizkuntza politika eta euskararen sustapenaren egitekoak. Eta, Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 15.1 artikuluan, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari ezarri zaio honako honen egitekoa: e) *Berrikuntza bultzatzea Euskararen normalkuntzan, bereziki Hizkuntza Teknologiak bultzatuz eta ingurune digitalean euskararen presentzia sustatzeko ekimenak eta programak bultzatuz.*

### III – PARTE HARTZAILEAK

Aitzinean aipatu da aztertutako hitzarmen honetan parte hartuko dutela, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta, bestetik, Euskararen Erakunde Publikoak.

Txosten hau sinatuko duenaren iritziz, hitzarmenean jasotzen diren parte-hartzaileei buruzko terminoak ez dira zuzenak. Izan ere, lehenengo eta hirugarren artikuluetatik iradokitzen da Eusko Jaurlaritza dela hitzarmenaren parte-hartzaile eta betebehardun, baina hori ez da terminologikoki zuzena.

Egia da, Eusko Jaurlaritza dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra zuzentzen duen organoa (Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren, 3/1979 Lege Organikoaren 29 artikulua, eta Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. Artikulua), eta hortaz, horren borondatea azaltzen duela. Baina, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra da, izatez, nortasun juridiko propioa eta izaera desberdindua duena (40/2015 Legearen 3.4 artikulua), Jaurlaritza haren zuzendaritza organoa izan arren. Hartara, hitzarmenean ezberdindu behar da, eta modu zuzenean jaso, akordioan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hartzen duela parte, eta administrazioa dela betebeharrak bere gain hartzen dituen; eta, aldiz, haren izenean, Eusko Jaurlaritzak burutuko dituela adierazpenak.

Hitzarmenaren beste alderdia Euskararen Erakunde Publikoa da, hau da, Frantziako legediaren arabera eratutako Interes Publikoko Elkargoa. 2004ko uztailaren 9an, Frantziako estatuak, Akitaniako eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamentuak, Euskal kultura sostengatzen duen Herrienarteko Sindikatak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak sortua izan zen, ondoko eginkizun hauetarako: Euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea; eta behar diren finantza baliabideak bermatzea, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo obralari batzurekin hitzartu dituenak gauzatzeko.

Bere hitzarmen sortzaileak, 2004ko uztailaren 9koak, hitzaurrean esaten duenez, bere idazki agintzailea edo eraentza juridikoa oinarritzen duen legea da Frantziar Estatuko 1987ko uztailaren 23ko 87-571 Legearen 22 atal edo artikulua (Loi n° 87-571 du 23 juillet 1987 sur le développement du mécénat), baliogabeturikoa, gaur egun 2011ko maiatzaren 17ko 2011-525 Legearen artikuluek ordeztu dutena (Loi n° 2011-525 du 17 mai 2011 de simplification en d'amélioration de la qualité du droit), hitzarmen sortzailea aldatzeko 2015eko otsailaren 10eko bigarren hitzarmenak aipatzen duena. Eta aipatutako 2011-525 azken lege horren 98. artikulua arabera, interes publikodun elkargo hauek ("groupement d'intérêt public") zuzenbide eta izaera publikoko erakundeak dira<sup>[1]</sup>.

Euskararen Erakunde Publikoak izaera propioa duenez gero, bere izenean jarduten du eta bere gain hartuko ditu hitzarmenean azaltzen diren betebeharrak.

#### IV.- NEGOZIOAREN IZAERA JURIDIKOA.

Aurkezten zaigun negozio juridikoaren kalifikazio juridikoa zehazteko, haren benetako izaera juridikoari erreparatu behar zaio; izan ere, tresna juridiko bati eman zaion izena edozein izanda ere, haren izaera negozio juridiko horren edukiak zehazten baitu. Hala adierazi zuen Auzitegi Gorenaren 1989ko otsailaren 6ko epaiak: "Hitzarmen juridikoak legez direnak dira, eta ez semantikoki adierazitakoaren arabera izan daitezkeenak".

---

<sup>[1]</sup> Loi n° 2011-525 du 17 mai 2011 de simplification en d'amélioration de la qualité du droit. [Article 98](#) "Le groupement d'intérêt public est une personne morale de droit public dotée de l'autonomie administrative et financière. Il est constitué par convention approuvée par l'Etat soit entre plusieurs personnes morales de droit public, soit entre l'une ou plusieurs d'entre elles et une ou plusieurs personnes morales de droit privé. Ces personnes y exercent ensemble des activités d'intérêt général à but non lucratif, en mettant en commun les moyens nécessaires à leur exercice. Les collectivités territoriales et leurs groupements ne peuvent pas constituer entre eux des groupements d'intérêt public pour exercer ensemble des activités qui peuvent être confiées à l'un des organismes publics de coopération prévus à la cinquième partie du code général des collectivités territoriales".

40/2015 Legearen 47.1 artikulua honela definitzen ditu hitzarmenak: "Administrazio publikoek, lotutako edo mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin helburu komun baterako hartzen dituzten akordioak, ondorio juridikodunak".

Beste negozio juridiko batzuekin egindako hitzarmenak (protokoloak, kontratuak) bereizteko, 47.1 artikulua honako hau gehitzen du:

*«Ez dira hitzarmentzat, jarduketa-protokolo orokortzat edo antzeko tresnatzat hartuko eduki orokorreko asmo-adierazpen hutsak dakartzatenak edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea adierazten dutenak, betiere konpromiso juridiko zehatzak eta galdagarriak formalizatzea ez badakarte.»*

*«Hitzarmenek ezin izango dituzte xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Kasu horretan, haren izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitakoari egokituko zaizkio.»*

Beraz, hitzarmena aldebiko negozio juridikoa da, administrazio publikoek, lotutako edo mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek, beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatua. Bertan, esku-hartzaileek adostutako betebeharrak/konpromiso juridiko zehatz eta galdagarriak adostuko dira, lankidetzan aritzeko eta interes publikoko helburu komun bat lortzeko.

Aztertutako hitzarmenean parte hartuko dute, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta, bestetik, Euskararen Erakunde Publikoak; bata administrazio publikoa eta bestea erakunde publikoa (Interes Publikoko Elkargoa). Hitzarmenaren xedea da EEPk osatu duen (euskara ↔ frantsesa) corpus elebiduna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari lagatzea, azken honek erabili dezan ITZULI itzultzaile neuronala hobetzeko eta trebatzeko.

Bada, aztertutako testuak hitzarmenaren elementu guztiak ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beste erakunde publiko batekin, Euskararen Erakunde Publikoak, sinatu nahi du; eta konpromiso zehatz eta galdagarri batzuk ditu, hala nola, EEPk osatu duen (euskara ↔ frantsesa) corpus elebiduna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari lagatzea, eta azken honek hura erabiltzea ITZULI itzultzaile neuronala hobetzeko eta trebatzeko.

Ez dago administrazio-kontratuen ohiko figurekin pareka daitekeen prestazio ekonomiko sinalagmatikorik.

## V.- EGITURA ETA EDUKIA

Proposatutako hitzarmenak atariko bat eta 9 klausula ditu. Lehenengo klausulan “Hitzarmenaren objektua” aipatzen da; bigarrenean “Hitzarmenaren indarraldia”; hirugarrenean “Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen dituen betebeharrak”. Laugarrena “Euskararen Erakunde Publikoak bere gain hartzen dituen betebeharrak”. Bosgarrena “Corpusaren jabetza intelektuala”. Seigarrena “Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak”. Zazpigarrena “Hitzarmena aldatzeko araubidea”. Zortzigarrena “Hitzarmenaren kudeaketaren jarraipenaren, zaintzaren eta betetzeren ardura”. Bederatzigarrena “Lege egokigarriagaitasun ahalmena”.

Orokorrean hitzarmenak 40/2015 Legearen 49. artikuluan jasotzen diren alderdiak jorratzen ditu, beraz, ez da antzeman legezkoatasunari buruzko arazorik.

Dena dela, txosten honen III. atalean azaldu denarekin lotuta, uste dugu, hitzarmenaren 3. artikulua izenburua aldatu behar dela ondoko honetara: “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek bere gain hartzen dituen betebeharrak”.

Era berean, hitzarmenean zehar Eusko Jaurlaritzari egindako beste hainbat aipamen ordeztu egin beharko lirateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri egindako aipamenengatik. Hala nola, 1.go artikuluan; 3. artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoan; 4. artikuluko lehenengo paragrafoan; eta 5. artikuluan. Hau da, oro har, hitzarmenaren alderdiei eta betebeharren titularrei buruzko erreferentzia egiten denean.

## VI.- ARAUDI APLIKAGARRIA

40/2015 Legearen 47.2 artikuluan Hitzarmen motak zerrendatzen dira.

Bada, d) puntuan honako hau jasotzen da: «*Nazioarteko tratatu, nazioarteko administrazio-akordio edo nazioarteko akordio araugintzaz bestelako ez diren hitzarmenak, administrazio publikoen eta nazioarteko zuzenbideko subjektu bateko organo, organismo publiko edo enteen artean sinatuak, alderdiek zehaztutako barne-ordenamendu juridikoaren mende egongo baitira.*»

Hortaz, artikulua horren esanetan, alderdien borondatearen autonomia printzipioan oinarrituta eta hitzarmenaren 9. artikuluari jarraiki, hitzarmenari Frantziako legedia izango zaio aplikagarri, partehartzaileek hala adostu dutelako, eta Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legean jasotako muga eta baldintzak betetzen direlako.

## VII.- IZAPIDETZEKO ARAUBIDEA

Hitzarmen honek ez du eduki ekonomikorik, eta ez dakar Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetako gastu-kapituluen zuzkidura handitzea. Hala ere, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu aurretik, komeni da hitzarmena Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidaltzea, azken honek alderdi hori berretsi dezan; besteren artean, horrela eskatzen dutelako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 22.1.a) artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Erregelamendua onartzen duen 464/1995 Dekretuaren 26.1 artikulua.

Hala ere, kontutan hartu behar da aipatutako Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legearen 11.4 artikulua agintzen duen Ministeritzaren txostena espedientean barneratu behar dela, nahiz eta txosten horrek diona loteslea izan ez, balio baimen emailerik edo ukatzailerik ezin duela izan interpretatu behar baita.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio aztertutako hitzarmenaren sinatzea onartzea; hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren kontseiluaren onarpena jasotzeko izapideak aurrera eraman beharko dira.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 62. Artikulua dio: Autonomia Erkidegoaren izenean sinatuko diren hitzarmenen onarpenaren eta sinaduraren adierazpena Lehendakariak azalduko duela; hala ere, artikulua horretan bertan aurreikusten da Jaurlaritzaren Kontseiluak eginkizun hori beste agintaritzaren esku utzi dezakeela. Beraz, Hizkuntza Politikako sailburuordearen esku utz daiteke hitzarmena sinatzeko eginkizuna.

## ONDORIOAK

Ez da legezotasun-eragozpenik ikusten hitzarmen-proposamena sinatzeari dagokionez, idatzian zerrendatzen diren gomendioak alde batera utzi gabe.

Txosten hau egiten dut, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut: